

### Irabazi Iturriak

Gure enpresak ez du irabazi-asmorik, hezkuntzaren kalitatea hobetu nahi duen erakunde bat garelako. Hala ere, azpiegiturak eta langileak mantetzeko diru iturriak lortzeko beharra ikusten dugu.

Proiektu hau ikasleei zuzenduta dagoenez, uste dugu ez daukatela ordaindu beharrik kalitatezko hezkuntza bat izateko. Hau da, ikasten daudenez eta beraien helburua nota altuak ateratzea denez, haien esfortzu guztiak ikastean bideratzen dira. Ez dugu bidezkoa ikusten gure app-a erabiltzarren ordaindu behar izatea.



Gure aplikazioa bideragarriagoa izateko, eta jendeak apunteak igotzeko, dirua ordainduko diegu sortzaileei, eta zenbat eta apunte gehiago igo (kalitate onekoak izanda, noski) gero eta diru gehiago irabaziko dute. Guk diru hau iragarkien bidez lortuko dugu, publikoak apunteak eskuratzeko ikusi behar izango dituenak. Horrez gain, bezeroak, nahi baldin badu, aukera izango du apunteak igo duenari donazioa egiteko, diru laguntzaren zati txiki bat enpresak jasko zuen azpiegiturak eta sortzaileei ordaintzeko.